

Istiluak  
Hondarribiko Alardean

# Irainak, muturrekoak eta eskopetakadak

Bidasoaldeko Emakumeek Hondarribiko Udalaren aurka ekintza legalak hasia aztertuko dute

**A**urtengo Hondarribiko Alardea berezia zen, herriko zenbait emakumek Alardean desfilatzeke asmoa azaldu baitzuten. Alardearen aurretik emakumeak herriko agintariek eta Alardeko buruekin hitz egiten saiatu ziren, baina ez zen elkarrizketarik egon, eta egoerak bere horretan zirauen igande goizean, konponbiderik gabe.

Jakes Goikoetxea / Hondarribia

HONDARRIBIKO alkateak berak Alardean erantzukizunik ez duela esan zien emakumeei, eta Alardeko buruek, berriz, debekatu egin zieten soldadu moduan desfilatzea. Gauzak horrela, igande goizean ezer ez gertatzea espero zuten guztiek, baina ez zuen inork neurrik hartu horretarako. Agintariek itxaropenak baino ez zituzten, eta Alardea zoriaren esku geratu zen, jendearen ustezko erreakzio bakesu eta arrazoizkoan. Baina esakerak esaten duenez, usteak erdia ustel.

Gehienek espero bezala eta inork nahi ez bezala, istiluak hasi ziren Hondarribiko Alardean. Kosta konpainiak eskopetak zerrura zuzendu eta tiro egin ondoren, Kale Nagusiko etxe batetik 25 emakume inguruko talde bat Kosta konpainian sartzen ahalgindu zen. Emakumeen aurkako erantzuna azkarra eta gogorra izan zen. Ondorioz, emakume batzuk konpainian sartzea lortu bazuten ere, asko atera ezinik geratu ziren.

Emakumeen nahia soldadu moduan desfilatzea bazen ere, istiluak sortuz gero erretiratzea erabaki zuten alde aurretik. Hori bai, atera behar zuten konpainiako buruari edo beste edozein agintariri beraien eskakizunak idatziz eman nahi zizkioten Alardetik erretiratu aurretik.

Zenbait emakumek Kosta konpainian sartzea lortu zuten irainak, muturrekoak eta eskopetakadak hasi ziren. Hala espero bazen ere, jendeak ez zuen erreakzionatzen jakin. Emakumeak, konpainiatik kanpora joateko eskatu ordez, jipoitu egin zituzten.

**Buruak ez zuen eskakizun papera hartu** • Ixabel Alkain, Alardean parte hartu nahi zuten emakumeen izenean, konpainiako buruari beraien eskakizunak idatzia ematen saiatu zen, baina honek ez zion papera hartu, eta «nik ez dut zuekin hitz egin beharrik» erantzun. Bidasoaldeko Emakumeek salatu zuten, konpainiako buruak berak ere eraso zien emakumeei.



Bidasoaldeko Emakumeen iritziz Hondarribiko istiluak Irungoak baino gogorragoak izan ziren, emakumeak iraintzeaz gain, jo egin baitzituzten.

JAGOBA MANTEROLA

Bestalde, Hondarribiko Alardean emakumeak eta beraien alde ziren gizonak jotzeaz gain, bertara hurbildutako kazetari, argazkilaria eta telebista kameralariei ere, EGUNKARIako argazkilaria tartean, eraso zieten istiluen irudirik atera ez zezaten.

Bidasoaldeko Emakumeek istiluen ondoren eman zuten prentsaurrekoan Borja Jauregi Hondarribiko alkatearen eta Udalaren jarrera salatu zuten, «eskuak garbitu baitituzte». Hitzeko salaketaz gain, auzitegiara jotzea aztertuko dute Hondarribiko Udalaren aurka. «Ahal ditugun neurri guztiak hartuko ditugu Udalaren aurka, bai juridikoki bai erakunde mailan. Bide guztiak jorratu eta egokiena zein den ikusi behar dugu. Epaitegiara jo behar badugu, joko dugu». Hondarribiko Udalaren aurkako neurriez gain, parte hartu zuten emakumeek salaketa partikularrak jarriko dituzte auzitegiaren.

Bidasoaldeko Emakumeek adierazi zuten, «emakumeek iraindu egin gaituzte, baina gizonak, tartean buru batzuk, jo egin gaituzte. Buru batek zuzenean parte hartu du erasoan, eta giroa baretu beharrean inork baino okerrago jokatu du. Buruek ez dute bete eman zuten hitza».

**«Hondarribiarrak gara»** • Jasotako laguntzari buruz, esan zu-



ten emakume asko beraien alde zeudela baina ez zirela desfilatzen ausartzen. Desfilatzen saiatu ziren emakumeen aurka erabili zen argudio nagusietako bat kanpotarrak direla izan zen, baina Bidasoaldeko Emakumeek zehaztu zuten, beraiek hondarribiarrak dira.

Istiluak gertatu ziren lekutik oso gertu zeuden Emakunde Txaro Arteaga eta Itziar Fernandez, EAJko Belen Greabes eta IUko Kati Gutierrez parlamentarioak, Mertxe Agundez EAEko Arartekoaren laguntzailea, EAko Esther Larrañaga, Eusko Jaur-laritzako Ingurugiro sailburuordea, eta Koro Garmendia EAJko Donostiako Udaleko zinegotzia. Bidasoaldeko Emakumeek leku-

ko gisa joan zitezkeen eskatu zieten, eta ikuskizun lotsagarria ikusteaz gain, jendearen irainak eta oihiak entzun behar izan zituzten.

Txaro Arteaga Emakunde zuzendariak istiluen ondoren zera adierazi zuen: «Ikuskizuna oso gogorra izan da, eta horrelakorik gerta ez dadin neurri guztiak hartu behar dira. Ez da posible festa batzuetan hau gertatzea». Itziar Fernandez Emakunde idazkari nagusiak Alardean ateratzen saiatu ziren emakumeen ausardia azpimarratu zuen. Bere iritziz, «Hondarribian ikusi eta bizi izandakoak muga guztiak gainditzen ditu, eta zentzugabekeriaren adibide bat baino ez da».

LAB sindikatuak ere gaitzetsi egin ditu Hondarribiko Alardean gertatutako istiluak. LABen iritziz, «guztiz onartezina da emakumezkoen parte hartzeke guneak ukatzea. Tradizioak eta ospakizunak ezin dira jarri inolaz ere emakumezkoen pertsona moduan dituzten eskubide eta askatasunen gainetik». Hondarribiko alkateak oraindik ez du adierazpenik egin Alardean gertatutako istiluei buruz.

Donostiako Plazandreak taldeak bere aldetik, Hondarribiko Udalaren jarrera salatu du prentsa ohar baten bidez: «Istiluen ardura beraien da, ez dituztelako behar ziren neurriak hartu». Era berean emakumeen jarrera goiraipatu du talde honek. X